

Orain inoiz baino gehiago

Maiatza



Desberdintasun Sozialen aurka



**LANAREN
KONFEDERAKUNDE
NAGUSIA**

www.cgt-lkn.org [@cgt](https://twitter.com/cgt) www.rojoynegro.info

2020ko Maiatzaren 1.a

Orain inoiz baino gehiago Desberdintasun Sozialen aurka

Chicago-ko martiriak gaur egun ukaezina dirudien eskubide bat aldarrikatzeko, 8 ordutako lanaldiaren defentsan, kalera irten eta erahilak izan ziren 1886 urrun hartatik Maiatzaren 1.a, Langilegoaren Nazioarteko Eguna, aldaera askotatik igaro izan da.

Aurten, Alarma Egoera dela eta **ezin izango gara gure aldarrikapenekin kalera irten**, baina horrek ez du gure ideiak eta nahiak biztanleengana helarazteko oztopo izan behar.

Maiatzaren 1. honetan kapitalismoaren eta gobernu jarriek indarrean jarritako neurri neoliberalen porrota oso ozen eta garbi ohiukatzea beharrezkoa da; COV19aren krisialdiak era ukaezinean azaleratu du. **Kalitatezko eta doako zerbitzu publiko unibertsalen** aldeko gure konpromezuak, eta **jabe pribatuei oparitutako enpresen eta ekoizpen baliabideen berreskurapenak**, gure konpromezua eta aldarrikapenak gidatu behar dituzte. Eta nola ez, baita **aldaketa klimatikoaren aurkako borrokak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta indarkeria matxisten aurkako borrokek**.

Osasun Publikoaren, Hezkuntza Publikoaren, Mugikortasunerako eskubidearen, **Garraio Publikoaren, Menpekotasun egoeran dauden** pertsonentzako atentzioaren alde, **Lan Erreforma guztien baliogabetzea, Zaintzarako** eskubidea, **Pertsona Berdinen Oinarrizko Errentaren** alde, biztanleriaren benetazko bizi beharrak bermatuz, enplegua zigorraren ordezkera bat izan dadin, **“Hustutako Espainia”** delakoari irtenbide errealek eskeintzeko **lurralde kohesioaren** alde, bidean bizia uzten duten eta gainesplotazioaren ondorioz hildakoen modura bizi diren **etorkinen** alde, **etorkizunik gabeko gazteen** alde ...hoinen guztien defentsa; Estatuaren **errepresioaren** eta bere **Mozal Legeen** aurka egitea, **guztiontzako pentsio duinen** eta nahikoen alde eragitea, etabar... gurea bezelako erakunde batentzat funtsezko erronkak dira.

Jasaten ditugun bidegabekeria larriei aurre egiteko orduan, eskura dugun tresna bakarra kalean borroka egitea dela eztabaidaezina da, errezesio baten hotsak entzuten diren honetan kalean borroka berrindartu behar dugu. **Kapitalaren gehiegikeria kontrolaezinak berriro ere langileriaren bizkar gainera erortzerik ezin dugu onartu.**

Horregatik egun inoiz baino gehiago:

GORA LANGILEGOAREN BORROKA - GORA MAIATZAREN 1A